

Angeluko serorak

Las religiosas conocidas popularmente como "Angeluko serorak" son, por su nombre oficial, la Congregación de las Siervas de María (Servantes de Marie), fundación muy ligada a la localidad labortana de Angelu/Anglet. Han vivido una historia peculiar, particularmente vinculada a las necesidades pastorales y educativas de Euskal Herria continental.

"Angeluko Serorak" deitu izan direnak erlijiosak dira, Hegoaldean "mojak" direnei Iparraldean "serorak" deitzen baitzaie gaur egun ere. Lapurdiko Angelun beren lehen Etxea jarri zutenetik (1838) euskal Iparralde osora zabaldu zen Kongregazio hau, eta Gurutzeko Alaben parean (hauen aurkezpena orain bi hilabete egin nuen aldizkari honetan), Elizaren eskola-sarea osatzen biziki lagundu zuten, herriz herri, parrokiak zuzentzeko.

Euskal Herrian jaioak (1838, 1842)

Angeluko Serorak sortzetik Euskal Herrikoak dira, Lapurdikoak, eta izatez ere Euskal Iparraldeari oso lotuta ageri zaizkigu, eta ez arrazoirik gabe. Izan ere, fundatzailea Baionako seme eta apaiza izan baitzuten.

Baionako Diozesian Iraultza ondoko eliz egituren izanberritzea sustatzean sortuko edo sartutako mojen presentziarekin batera etorri ziren Angeluko seroren sortze-hazkundera. (1830.eko hamarkadatik aurrera).

Guztiaren lehen eragilea Louis-Edouard Cestac apaiz diozesitarra izan zen (1801-1868), ekimenez betetako gizona, eta bere lan pastoralak gizarteko premiekin txirikordatuta eramaten asmatu zuena, izan ere Iparralde pobreak (neka-


zari-mundu apala batez ere, pentsa daitekeenez) behar asko baitzegoen sasoi hartan, Elizatik kanpo ere.

Louis-Edouard-en aitaren aldeko berraitona, Sebastian Amitesarobe, donostiarra zen, 1729an Baionara ezkondu eta txokolategian lan egin zuena; aitaren aldekoak, berriz, okzitaniarrak zituen (Gers departamentukoak). Frantsesarekin batera euskara eta biarnesa ikasteko aukera izan zuen, neurriren batean behintzat.

Landetako departamentuan hasi zituen Seminarioko ikasketak, 1816an, eta 1820a arte luzatu ziren heziketa-urte haiek. Garikoitz gaztea ikaskidea izan zuen han. 1820an elizbarrutiak St-Sulpice-ra bidali zuen azken ikasturteak Pariseko Seminario sonatu hartan eman zituzan, baina, gaixoturik, laster itzuli behar izan zuen.

Larresoroko Semiarioan eman zioten orduan lantegia, matematika-irakasle bezala. XIX. mendeko apaiz ezagunen lagun izateko aukera izan zuen Larresoron. 1825ean apaiztu zen Baionan eta Filosofiako Irakasle bezala jarraitu (1824-1831). Garaiko katolikotasun liberalak, izan zuen Cestac-engan eraginik, eta, ondorioz, lehertze-ar zegoen krisiak harrapatu zuen bera ere (La Mennais: Singulari nos, 1834).

Beste zenbait irakaslerekin batera Cestac



Gotzainak Seminariotik atera zuen (1831), eta Baionako Katedralerako apaiz laguntzaile izendatu. Ordutik aurrera bide berriei ekingo zien.

Eliza eta gizartearen artean

Ideien lehiatik at beharbada, baina gizarte kristau baten aldeko zergehiagokan sartu zen Aita Cestac, hau da, inguruko gizartearen modernitate berrian beharko ziren bideak urratzen, Elizan eta herritarren premiak ezagutu eta gizarteko giza baliabideak biltzen. Horren frogadira Iparraldean sortu zituen Elkarte eta Lagunarteak.

Emakumezkoen beste hainbat Kongregazio berriri aurea hartuz eta zetozkion eskeei erantzunez sortu zuen "Mariaren Zerbitzarien" elkartasun hau (1842). Baina emankorra izan behar eta bi Kongregazio eratu zituen Aita Cestac-ek, emakumezkoenak biak: aipatutako Mariaren Zerbitzariena ez ezik Serora Bernartarena ere (kontenplariak); batak zein besteak beren Sortetxeak Angelun izan zituzten, eta dituzte.

Landa-mundua izan zen Cestac-en ardura nagusia (nekazariak, ganaduzaleak), Iparraldeko ekonomiari irtenbide hobeak bilatzen ahalaginduz, herritarrak emigratzera bortxaturik gerta ez zitezen egin zuen. Laborantza indartzeko teknika eta esperientzia berriak abiarazi zituen, Napoleon III. engandik ohorezko aitopen ofiziala irabazteraino (1865). Cestac laborari eta agintarientzat aditu ezagutua bilakatu zen, beraz.

Ahalegin horien ondoan, Eskolen eta Hezkuntzaren mundua suertatu zen Cestac-en lan-esparru maitea. Maite zituen baserri eta

herrixkak, eta ezagutu ere ezagutzen zituen berorren premiak. Bestalde, Frantziako Eliza orduantxe ari zen bere eskola-sistema eraikitzen. Garaiei zegokien logika horrekin egingo du lan berak ere.

Artean, fundatzailea bizirik zela, 20 Eskola ireki zituzten Angeluko Zerbitzariak, maiz baldintza material zailetan, bizpahiru laguneko irakasle-serorekin. Moja hauek –gehienbat herrietako alabak– izan ziren Iparraldeko herrietan Erretoreen lankiderik saiatuenak, Eskolan bezala Elizan eta herritarren artean.

Premia ekonomikoak bultzatuta lan-eskean Ameriketara joandako euskaldunei eskaini ziren Zerbitzariak beren laguntza, eta Argentina edo Uruguay-n ikus ditzakegu "indiano" behartsu eta ez hain behartsuen artean. Kasu honetan, emigrazioaren parte izan ziren mojak ere.

Mariaren Zerbitzarien historia datu xume hauen bidez laburtuko dut hemen: 43 Etxetako 297 lagunek osatzen dute Kongregazioa, 2009an; 10 Etxe dituzte irekita Euskal Iparraldean (horietako 4 Angelun bertan, 2 Baionan eta Etxe bana Bidarte, Kanbo, Donapaleu eta Donazaharren). Cestac-en bigarren fundazioko serora bernartarren Monasterioa gehitu dakioke, horri guztiari, hau ere Angelun.

XX. mendearen hasieran Hegoaldera etorri beharrean aurkitu ziren Zerbitzariok, eta hemen hainbat Etxe izan ondoren, gaur egun hiru dituzte: Donostian bi (Intxaurrondo eta Buztintxulo kaleetan) eta hirugarrena Burlatan.

Joseba Intxausti

Galderak eta oharra: 610273580